



KUDEAKETA PLANA 2024
EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA	4
2. ARDATZA: GEOTURISMOA	6
3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA	8
4. ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA	10
5. ARDATZA: GESTIO OROKORRA komunikazioa eta marketina	11

Sarrera

2024. urtea, hurrengo bi urteekin batera, mugarri bat izango da Euskal Kostaldeko Geoparkearen ibilbidean. 14 urte betetzeaz gain, Geoparkeak Next diru laguntzetatik jasoko duen kopuruak beste abiapuntu batean kokatutako gaitu, turismoko azpiegiturek lurraldeak duen irudiaren maila izango baitute, behingoz.

Dibulgazioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza izango dira landuko diren ardatzak, bertan zein kanpoan irekiko dugu Geoparkearen mezua: hitzaldi, aurkezpen eta foro ezberdinen bitartez. Geoturismoko eskaintza sendo mantenduko da aurten eta irteera gidatuen kudeaketan orientazio aldaketa egongo da. Erabaki honek partaide kopurua jaitsiko duen arren Geoparkearen estrategia hobeto burutzera eramango gaitu, lurralde orekatuago bat izateko. Ekoturismoko Kongresua izango da aurten ekimenik garrantzitsuenetarikoa, oihartzun handia izango du mediatikoki eta turistikoki posizionatzen lagunduko digu.

Geoparkearen irudiak lanketa bat izan du, logoaz gain mezuak ere birdefinitu dira eta egokitze honek daraman prozesua, 2024an garatuko da euskarri guztietan.

Geoparkezaleen komunitatearen garapena izango da aurtengo gakoa. Gaur egun lan egiten dugun sektoreko enpresa berriak sartuko dira eta sektore berrietara irekiko da, batez ere bertako ekoizle eta jatetxeetara. Kulturarekin zerikusia duten beste elkarte eta agentekin ere lanean hasiko gara komunitatera gehitzeko asmoarekin.

Espainiako Geoparkeen Sareak ere bultzada handi bat izango du Geoparkeen Elkartearen sorrerarekin. Elkarrekin gauza gehiago egiteko gai izango gara eta horrek indartsuagoak egingo gaitu.

1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honek Lurraren Zientzien eta natura- eta kultura-ondarearen ikerketarekin eta gizartearatzeari lotutako helburuei erantzun nahi die.

Zehazki, ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoan, itsas ondarean eta ondare ukiezinean jartzen du arreta. Ardatz honen helburua da, halaber, ingurumen-hezkuntza koordinatuaren eskaintza garatzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat bisitari motarentzako gune interesgarri bihurtu dadin, eskola-eremuan bereziki.

Geoparkeko teknikarien zeregin garrantzitsu bat ikastaroetan eta hitzaldietan parte hartzea da, bai online, bai aurrez aurre. Ikusgarritasun handiko lekuak dira, oso publiko zehatzari zuzenduak, eta horien artean Geoparkeak bere burua kokatu nahi du ondare geologikoa ikertzeko, kudeatzeko eta zabaltzeko erreferente gisa.

1.1. Lurraren Zientzien (LZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- **Interesgune geologikoen karta jokoa.** Lurraren zientziak dibulгатzeko modu originala da. Gidarien ikastaro bateko ikasle ohi batek aurrera eramango du.
- Geoparkeak bultzatutako **ikerketa**. Lau proposamen iritsi dira. Balorazioa egingo da eta ondoren, urte guztia izango dute proiektua garatzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren natura-ondarearen laguntzetara, ikerketa eta dibulgazioa helburu duen **iknofosilen** inguruko proiektu bat aurkeztuko dugu, Zumaiako Udalarekin batera. Proiektua aurrera badoa, Geoparkea arduratuko da aurrera eramateaz.
- Eusko Jaurlaritzak lagundu duen **Debako septarien erakusketa**, ibiltari bihurtu nahi dugu. Momentuz martxoaren 14an Mutrikun irekiko da, Euskal Kostaldeko Museoen hilabetea dela aprobetxatuz.
- **NEXT diru laguntzekin** egingo diren proiektuen edukien jarraipena egingo zaie. Proiektu bakoitzean partaidetza eta lan karga ezberdina izango dugu.
 - Mutrikuko Santa Katalina komentuko Nautilus Interpretazio Zentroa
 - Zumaiako Mollaberry bisitari harrera gunea
 - Zumaiako Algorri Interpretazio Zentroa

1.2. Ondare arkeologikoa eta historiaurrearen ikerketa eta dibulgazioa

Ermittia kobazuloan indusketa kanpaina arkeologiko bat egingo da bigarren urtez, Aranzadi eta UPV/EHUko ikerlarien eskutik, HAB (Historiaurreko Bailara) proiektuaren barruan.

1.3. Ondare ukiezinaren zabalkundea

2023an hasitakoaren harira, hiru herrietako euskara zerbitzuekin batera ekimen bateratuak bultzatuko dira.

1.4. Ingurumen hezkuntza

Azken urteotan garatu diren hiru unitate didaktikoetan Geoeskolen parte hartzea sustatzen jarraitzen dugu. Material berria sortu aurretik, dagoenari erabilera eman eta optimizatzen dugula ziurtatuko dugu.

- Geoparkeko Flyscha DBH4rako
- Amonite fosilak LH1erako
- Lasturko Karsta LH6rako

Geoparkeak, lurraldean kokatutako bederatzi ikastetxeei material hori doan eskainiko die eta beste ikastetxe batzuek ere egin ahal izateko aukera eskainiko du. **Logo berezi** bat izango du proiektuari duen garrantzia eta ikusgarritasuna emateko.

Kardala LHI akuikultura eskolarekin planktonaren inguruko proiektu amankomun bat egiteko begiratzen gabiltza.

Gidarien ikastaroa. Bi urtetik behin Geoparkeak, gidariak hezteko ikastaro bat antolatzen du. Formatu ezberdinak izan ditu edizio bakoitzean baina oraingo honetan hasierako egiturara bueltatuko gara, geoparkean diharduen gidariei formakuntza tekniko eta praktikoa eskaintzeko.

2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa edo ekoturismoa dira geoparkeak dituen turismo garapenerako ereduak. Hau da, kontserbazioa lehenetsiz turismoa bertako garapenaren aldeko tresna bihurtzea, ondare natural eta kulturala balioan ipini eta interpretatzen duen bitartean. Next diru laguntzen epean bete betean sartzen gara horrek dakarren proiektu eta jarraipen lanarekin.

2.1. Produktu eta baliabideak

Berrikuntza moduan **“Flyscha familian”** eskainiko da geoparkeko programa ofizialean, Mutrikuko Nautilus gela didaktikoa eta itsas-irteera batzen dituen.

Kirol ekitaldiak lagundu edo sustatzeko irizpideak ezarriko dira. Orain arte laguntzen direnekin jarraituz:

- Lasturko mendi martxa: Geoparkeko Karstari bira
- Flyscha Beltza, Saturraran-Deba igeri zeharkaldia

2.2. Bisita gidatuak

2024an lehiaketa publiko berria kaleratu da. Urte hasieran hausnarketa sakon bat egin zen eta orain arte bezala urteko programarekin jarraitzea erabaki zuen lantaldeak, denborak eta esperientziak agintzen dituen egokitzapenak egin eta gero, noski.

Taldeentzat eta partikularrentzat diren bisitak bereiztuko dira eta online erreserba sustatuko da nahiz eta hiru turismo bulegoak salmenta puntuak izaten jarraituko duten. Bidaia agentzia eta salmentarako beste plataforma batzuekin lanean jarraituko dugu, negozio bolumena handitzen saiatuz.

Beti ere, Geoparkea bere osotasunean erakusten laguntzen duten bisitak sustatuz ezagunagoak direnen aurrean.

2.3 - Promozioa eta merkaturatzea

- **Turismo azokak.** Basquetourrek edo Gipuzkoa Turismok ordezkatzeko gaituzten azoketara joango gara. Ekoturismo kluba nazioarteko azoketara ere joaten da Geoparkea sustatuz. Gainera, Aste Santuan, **Bilbao Basque Festen** izango gara, aurten stand bereziki atonduko dugu diseinu deigarri batekin. Aurten **Fiturren** bi tokitan izango gara, Euskadiko standean eta Unescoren Geoparkeen stand berrian.
- **Ekoturismoko VII Kongresua** urriaren 22-24 bitartean ospatuko da Geoparkean. 200 partaide inguru izango ditu eta estatuko hainbat ekoturismo produktuen ereduak ezagutuko ditugu. Guzti honen antolakuntzaz arduratuko da Geoparkea.
- **Merchandising elementu berria** turismo-bulegoetan saltzeko eta enpresa-opari gisa.
- **Ecoturismo Klubarekin** promozioa. Azoketan, newsletteraren bitartez eta beste hainbat ekimenen bitartez.
- **Blogtrip.** Helmuga eta merkatu egokietan irekitzen lagunduko diguten blogariak ekarriko ditugu.

3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

Baliabideen kontserbazio eta kudeaketa iraunkorreko arloek duten garrantzia azpimarratzen da.

3.1. Ibilbideak eta bidezidorrak diseinatzea

- **“Geoparkeko Bira”** senderismo produktu turistikoa berria seinaleztatu eta promozionatu. Hiru etapako bira izango da eta aurretik homologatutako bideetan zehar jardungo du ia osotasunean.
- **Geoibilbideak** Itziarren. Next diru laguntzei lotuta dagoen proiektua da hau eta Anduzko geoibilbide eta Arbilgo geoibilbideak dira garatuko direnak.

3.2. Mugikortasun iraunkorra

Next diru laguntzei lotuta dagoen proiektu bat da. Hiru herrietako aparkalekuak monitorizatuko dituen tresna digital bat jarriko da, trafiko fluxuaren kudeaketa errazteko, aurten hasi eta hurrengo urteetan bukatuko den proiektu bat izanik.

3.3. Interpretaziorako azpiegiturak

- Next diru laguntzei lotuta, Zumaian, **Moilaberri eta Algorriko** azpiegiturak berriztuko dira, aurten museografiako pleguak ateratzea da helburua. Geoparkea bi proiektuetan egongo da pleguak idazten laguntzeko eta epaimahaian, hala eskatzen bazaio.
- Eskaintza turistikoa **digitalizatu** egingo da Next diru laguntzei esker.
- **Seinaleztapen bertikala** indartzen jarraituko dugu. Herrien sarreretako seinaleak eta interesguneetako totemak diseinatu eta ipintzen joango dira.

3.4. Natura-ingurunea babestea eta kontserbazioa

- **Biodibertsitateko gida ilustratua** maketatu eta inprimatuko da. Iaz egin ziren landa lana, testuak eta ilustrazioak eta aurten kaleratu egingo da.

- Zientziari lotutako BIOTOP herritarren topaketak eta Nazioarteko Egunen ospakizunak:
 - Euskal Kostaldeko Museoen hilabetea, martxoan.
 - Biodibertsitatearen Eguna, maiatzaren 22an.
 - Ingurumenaren Eguna, ekainaren 5ean.
 - Ozeanoen Eguna, ekainaren 8an.
 - Clean up Day, irailaren 16an.
 - Klima aldaketaren aurkako Eguna, urriaren 24an.
 - Mendien Eguna, abenduaren 11n.

- Naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko beste ekimen batzuk ere egingo dira:
 - Kutxa Ekoguneko Bihotz Berdeak programarekin lankidetzatza.
 - Biotopoa lehengoratzeko lanak Santa Katalinan.
 - Ekoturismo Kongresuak dakarren kontserbazio proiektua garatuko da, seguruenik itsasoko zaborren inguruan.

4. ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

4.1. Lehen sektorea bultzatzea

- Otar goxoa edo beganoa (eztia, mermelada eta sagardoa) sortuko da. Beste otarrarekin egin dugun tratamendu berdina izango du, bertako produktua balioan ipini eta Geoparkearen irudiarekin lotzea.

4.2. Geoparkezaleak

Aurten komunitatea handitu eta zabaltzeko asmoa daukagu:

- Unescoko ebaluatzaileen gomendioa jarraituz, bertako produktuen ekoizleak eta jatetxeak Geoparkezale komunitatera batzen hasiko gara.
- Kultura eta euskara taldea martxan jarriko da. Hortik atera daitezkeen ekimen eta elkarteak komunitatera gehitzeko asmoz.

Komunitate barruan eta kanpora begira promozio ekintzak egingo dira.

4.3. Europako Geoparkeen Astea

- Biodibertsitatearen kontserbazioarekin lotuko dugu aurtengo edizioa. Maiatzaren 24tik ekainaren 2ra da EGN sareak aukeratutako datak. Ondorengo ekintzak egingo dira, besteak beste:
 - o Biodibertsitateko gidaren aurkezpena egingo da
 - o lazko errekaen ikerketa proiektuaren aurkezpena
 - o Flysch beltzeko konkrezioen ikerketaren aurkezpena
 - o LHko ikasleei zuzendutako marrazki lehiaketa
 - o DBHko ikasleei zuzendutako podcast lehiaketa

5. ARDATZA: GESTIO OROKORRA komunikazioa eta marketina

Gobernantza landuko dugu, proiektuan inplikatutako eragileekin aliantzak indartuz eta sustatuz (Zuzendaritza Batzordea, EGN, GGN, Unesco, Geoparkezaleen komunitatearekin, esaterako).

laz komunikazio arduradunaren lanpostu berria sortu genuen. Aurten, lantaldea mantentzea da helburua, bai kontratazio zuzenak baita kanpo asistentziak ere.

Geogarapeneko lantaldea: bertako langileak

- **Gerentziak** geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko (EGN/GGN) eta Geoparkeen Espainiako Batzordeko (CNEG) ordezkaritzako funtzioak hartzen jarraitzen du. Ekoturismo Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea da eta baita Espainiako Geoparkeen Foroaren koordinazio-taldeko idazkaria.
- **Bisita gidatuen dinamizatzailerak**, 2024rako, zeregin hauekin jarraituko du: erreserben online sistemaren kudeaketa eta turismo-arloaren kudeaketa orokorra.
- **Komunikazio eta marketin-arduradun** berriak, webgunea kudeatu, prentsarekin harremana, aurkezpenak, etab. Orokorrean, arloko gestio orokorra eramango du. 2023an egindako Marketin Plan berrian oinarritutako marketin-ekintzak martxan jartzeaz ere arduratuko da.

Kanpo laguntzak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitzen du, EGNko eta GGNko ordezkaritasunarekin eta IUGSko (International Union of Geological Sciences) Ondare Geologikoaren Batzordearen koordinazioarekin batera.
- **Community managerra** (RSSSen kudeatzailea) @Geoparkearen estrategiarako Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan.

- **Ingurumena eta ingurumen hezkuntzan koordinazioa**, Naturagune Babestuetako (NB) jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko.
- **Kontabilitate-aholkularitza**, aholkularitza juridikoa eta urteko kontuen auditoretza erakundearen eguneroko kudeaketarako.

5.1. Gobernantza

- Geoparkearen handitze aukerak aztertuko dira mugakide diren herriekin inbentario berriak eman dituen interesguneetan oinarrituta eta beraien borondatearen arabera.
- Instituzioen laguntza mantendu, bereziki Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin, hitzarmena legealdiaz haratago luzatuz.
- Eusko Jaurlaritzak GIH inguruan antolatzen dituen dinamikak eta lantaldeetan jarraitu.
- Centro Regional de Educación para el Desarrollo Sostenible (RCE) sareko kide izaten jarraituko dugu.
- Geoparkezaleen sarea zabalkundea beste arlo batzuetara iristeko helburuarekin, merkatariak, kultur elkarteak, etab.

5.2. EGN, GGN eta UNESCO Geoparkeen Europako Sarearekiko harremanak

2024an Geoparkeen Munduko Sarearen 20. Urteurrena ospatzen da. Ospakizunei hasiera emateko, Fitur izango da aukeratutako ekimena. Lehenengo aldia da estatuko geoparkeek stand propio bat izatea antolatzen dugula, gure marka eta irudia indartzeko asmoarekin. Honekin lotuta, hainbat ekimen bultzatu ditugu geoparketik:

- **Espainiako Geoparkeen Sarearen Elkarte**. Estatutuak prest daude, denen adostasunarekin idatziak izan dira eta 2024an zehar elkarte erregistratuko da eta pixkanaka geoparke guztiak atxikitzen joango gara.
- **GGN/EGN topaketak.**
 - Martxoaren 5etik 9ra, Turkiako Kula Geoparkean egingo da udaberriko topaketa.
 - Urriaren 1etik 5era, Islandiako Reykjanes Geoparkean izango da.

- Urtero bezala, Geoparkeko bi ordezkari ofizialak **ebaluatzaileen** zerrendan egongo dira, Unescoren izenean beste geoparke batzuetan ebaluazioak egiteko.
- IUGSeko Ondare Geologikoko koordinatzaile lanetan jarraituko du zuzendari zientifikoak.
- Sareko hedapen medioetara ekarpenak bidaliko dira, **newsletter eta magazineta** gure ekintzen berri emanez.
- **Espainiako Geoparkeen Batzordean** (CNEG) ere jarraituko dugu, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen zuzendariarekin batera. Hemen, hautagai berrien proposamenak eta programari dagozkion erabakiak hartzen dira.

5.3. Komunikazio estrategikoa

ONLINE

- Webgunean hobekuntzak: Etengabeko zeregin bat da hau, urtero egiten dira webgunean hobekuntzak, bai atal orokorretan bai eta irteera gidatuen erreserba prozesuan. Aurten cookien legearen egokitzapen bannerra jartzea, Geoparkeko birako atalak eta fitxak, 'Nor gara' atala eta turista arduratsuaren atala sortzea eta Geoparkezaleen atalak hobetzea ekarriko ditu.

OFF LINE

- Promozio-bideo berria egingo da. Oraingoak 12 urte ditu eta bete du bere funtzioa, berritzeko beharra dago.
- Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak antolatzen jarraituko da. Medioetan presentzia zabaldu behar dugu ordaindu gabeko agerraldien bitartez.

5.4. Marketina

2023an Marketin plan berriaren ondorioz atera diren ekintzak garatuko dira aurten.

- Irudi berria euskarri guztietan aplikatzen jarraitu.
- Sare sozialetarako eduki berriak sortu.
- Bloga elikatu.
- Newsletterren bidalketetarako datu basea eguneratu.